

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Sailsa****Euskara, Kultura eta Kirol sailaren 2020ko otsailaren 14ko 4/2020 iragarkia,  
Bizkaiko Hipika Federazioaren Estatutuen aldaketan publizitatea egitekoa.**

Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 70.1 artikulua dio estatutuak aldatu ahal izateko beharrezkoa dela horretarako deitutako Batzar Nagusira bertaraten diren kideen bi herenek horren aldeko botoa ematea.

Bizkaiko Hipika Federazioak 2020ko otsailaren 3ko Ezohiko Batzar Orokorrean zuzen onetsi zuen Estatutu aldaketa, eta aldaketa hori Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren otsailaren 13ko 500/2020 Foru Aginduaren bidez onetsi da, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 65. artikulua xedatutakoari jarraiki.

Iragarki honen bidez onetsi den aldaketa argitaratzen da:

— Bizkaiko Hipika Federazioaren Estatutuen 29. artikulua aldatzea.

*Zera dioen lekuan:*

«Presidente berritu aukeratu ahal izango da, baina agintaldiek epe-muga dute, ondoz ondoko lau agintaldi, hain zuzen. Halaber, ondoz ondoko lau agintaldiak iragan ondoren, ezin izango da berritu presidente izendatu gutxienez lau urte igaro arte.»

*Zera esan behar du:*

«Lehendakaria berrautatu ahal izango da hurrengo hauteskundeetan, izan ditzakeen agintaldien kopuruan inolako mugarik izan gabe.»

Bilbon, 2020ko otsailaren 14an. — Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Lorea Bilbao Ibarra